

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

LEHEN HEZKUNTZA

3. ZIKLOA

AURKIBIDEA:

- Arte Hezkuntza**
- Erlijioa**
- Euskara**
- Gorputz Hezkuntza**
- Ingelesa**
- Ingurune**
- Matematika**

ARTE HEZKUNTZA

5. MAILA

1. Adierazpen estetiko-artistikoko bitartekoen arteko loturak finkatzea: musika, ikusizko arteak, dantza, literatura, poesia... Antzekotasunak kontuan hartzea.

1.1. Ea enpatiarik ageri duen artearen eta kultura-produktuen komunikazio-alderdiarekin.

1.2. Ea artelanean intereseko kultura-baliorik hautematen duen.

2. Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak egiteko, norberaren premietara egokitutako teknikak, baliabideak eta arauak erabiltzen ditu, eta haiek aukeratzeko arrazoiak ematen ditu.

2.1. Ea behar bezala erabiltzen dituen musika-hizkuntzaren edo ikusizko hizkuntzaren kodeak.

2.2. Ea teknika egokia erabiltzen duen arte-eremuan komunikatzeko.

3. Baliabide teknikoekin eta musikako eta ikusizko arteetako hizkuntza-baliabideekin lotutako gaietan eman izan diren konponbideak aztertzea, eta erreferente estetiko berri gisa sartzea.

3.1. Ea gelan aztertzen ari diren artelana aztertzen duen bere gaitasunen arabera.

3.2. Ea hautematen dituen aurretik aurkeztutako musika-lan edo ikusizko lan baten alderdi garrantzitsuak.

4. Ideiak, irudikapenak, lanak... eraldatzeko, irudimena, bilaketa, manipulazioa... erabiltzea.

4.1. Ea behar bezala antolatzen dituen arte-ekoizpenerako egin beharreko urratsak.

4.2. Ea ematen duen musika-lana edo ikusizko lana zehazteko eta lanari azken ukitua emateko balio duen ideiarik.

5. Bakoitzaren lan-prozesuaren plangintza egitea, arrazoituz, komunikazio-premien arabera.

5.1. Ea baliabiderik duen arte-ekoizpenean egin beharreko egokitzapenak egiteko.

5.2. Ea jarrera kritikoa eta eraikitzailea duen ikaskuntza-prozesuan.

6. Irudiek eta musikak eguneroko ingurunean dituzten esanahiak eta erabilerak kritikoki interpretatzea.

6.1. Ea ezagutzen duen hautematen dituen musika-mezuen eta ikusizko mezuen helburua.

6.2. Ea interesik ageri duen bere kultura-ondarea eta beste kulturen ondarea ezagutzeko.

7. Gizarte-alderdiek (botere-harremanak, generoak, ideologiak...) artelanak sortzeko duten garrantzia ulertzea, eta ikuspegi kritikoa garatzea.

7.1. Ea hautematen dituen musika-gertaeraren edo ikusizko gertaeraren oinarrizko alderdiak.

7.2. Ea identifikatzen dituen estilo jakin bateko lanen ezaugarri komunak.

8. Taldeko jardueretan parte hartzea, eta lankidetzajarrerak erakustea, jarduera horiek ondo ateratzeko.

8.1. Ea entzuten dituen jarduera egiten ari diren taldeko gainerako kideen ekarpenak.

8.2.Ea laguntzen dien arte-jarduerako gainerako kideei, elkertasunez jokatuta.

9. Taldean egiten diren arte-jardueretan norberaren ekarpenak duen garrantzia balioestea, bai eta pertsonen arteko kohesioan lankidetzak duena ere.

9.1.Ea bere artelana aztertzen duen, eta hobetzen saiatzen den.

9.2.Ea atsegin duen kalitatezko lanak egitea.

10. Hainbat jatorri eta kulturatako arte-adierazpenen arteko erlazioa elementu aberasgarria eta prozesu historiko errepikaria dela ulertzea.

10.1.Ea hautematen dituen inguruko arte-adierazpenak.

10.2.Ea aitortzen duen kulturen arteko ekarpenen interesa.

6. MAILA

1. Adierazpen estetiko-artistikoko bitartekoen arteko loturak finkatzea: musika, ikusizko arteak, dantza, literatura, poesia... Antzekotasunak kontuan hartzea.

1.1.Ea erabiltzen dituen musika edo ikusizko arteak egiten dituen jardueretan.

1.2.Ea behar bezala aukeratzeko duen musika-materiala edo ikusizko materiala, une bakoitzeko beharrak oinarri hartuta.

2. Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak egiteko, norberaren premietara egokitutako teknikak, baliabideak eta arauak erabiltzen ditu, eta haiek aukeratzeko arrazoiak ematen ditu.

2.1.Ea egoki antolatzen dituen arte-hizkuntzen oinarriko elementuak, komunikazioan erabiltzeko eta musika-hizkuntza eta ikusizko hizkuntza deszifratzeko.

2.2. Ea halako autonomia batez baliatzen den arte-hizkuntzaren bitartez komunikatzeko.

3. Baliabide teknikoekin eta musikako eta ikusizko arteetako hizkuntza-baliabideekin lotutako gaietan eman izan diren konponbideak aztertzea, eta erreferente estetiko berri gisa sartzea.

3.1. Ea behar bezala erabiltzen dituen aurretik dituen ezagutzak artelan bat ikustean.

3.2.Ea bere iritzia ahoz koherentziaz argudiatuz eta eman beharreko mezuaren adierazpen-mailarekin uztartzen saiatuz adierazten duen.

4. Ideiak, irudikapenak, lanak... eraldatzeko, irudimena, bilaketa, manipulazioa... erabiltzea.

4.1.Ea prozesatzen dituen irakasgaiari buruz dituen ezagutzak, musika-produktu bat edo ikusizko produktu bat egiteko.

4.2.Ea buruz prestatzen duen interpretatu edo berregin behar duen lana.

5. Bakoitzaren lan-prozesuaren plangintza egitea, arrazoituz, komunikazio-premien arabera.

5.1.Ea egiten duen arte-lanean egin beharreko esku-hartzeen plangintzarik.

5.2.Ea erabiltzen dituen irakasgaia ikasten jarraitzeko bete beharreko ebaluazio-jarraibideak.

6. Irudiek eta musikak eguneroko ingurunean dituzten esanahiak eta erabilerak kritikoki interpretatzea.

6.1. Ea hautematen dituen artearen gizarte-funtzioak.

6.2.Ea erabiltzen dituen bere arte-esperientziaren ondorioak ingurunera egokitutako musika-produktu edo ikusizko produktu berriak egiteko.

7. Gizarte-alderdiek (botere-harremanak, generoak, ideologiak...) artelanak sortzeko duten garrantzia ulertzea, eta ikuspegi kritikoa garatzea.

7.1.Ea bereizten duen artelanaren balioa, testuinguruaren barruan aurkeztuta.

7.2..Ea argudiatzen dituen hainbat lanen artean dauden loturak.

8. Taldeko jardueretan parte hartzea, eta lankidetzak-jarrerak erakustea, jarduera horiek ondo ateratzeko.

8.1.Ea taldearekin lan egiten duen, arte-ekoizpena ahalik eta gehien egokitu dadin bere gaitasunetara eta adierazpen estetikoaren premietara.

8.2.Ea harmonikoki parte hartzen duen taldean, eta bere ekarpen materialaren bidez arte-produktu on bat sor dadin saiatzen den.

9. Taldean egiten diren arte-jardueretan norberaren ekarpenak duen garrantzia balioestea, bai eta pertsonen arteko kohesioan lankidetzak duena ere.

9.1.Ea jartzen dituen bitartekoak bere arte-jardueraren bidez bere burua garatzeko.

9.2.Ea arte-adierazpena bere burua ezagutzeko bide gisa erabiltzen duen.

10. Hainbat jatorri eta kulturatako arte-adierazpenen arteko erlazioa elementu aberasgarria eta prozesu historiko errepikaria dela ulertzea.

10.1.Ea ezagutza-iturri gisa hartzen dituen bere kultura-ondarearen arte-adierazpenak.

10.2.Ea interesatzen zaizkion inguru hurbileko arte-berrikuntzak.

ERLIJIOA

5. MAILA

1. SINESMENEI buruzko gaitasunak

1.1.Kristau elkarteak gauzatutako jardueren zerrendaren eta horien oinarri diren sinesmenen zerrendaren arteko korrespondentzia ezartzen du.

1.2.Kristau elkartearen jarduera bat deskribatzen du, jarduera hori Elizari buruzko zein sinesmenen ondorio den aipatuz.

1.3.Jokaerarako arau jakin bat justifikatzen du, kristau elkartearen sinesmen edo irakaskuntzetan oinarrituz.

1.4.Herri erlijiotasuneko adierazpen baten eta honi lotuta dagoen kristau sinesmenaren arteko antzekotasun eta aldeak aipatzen ditu.

1.5.Iraganeko irudi, eraikin, objektu erlijioso batek adierazten edo islatzen duen/dituen sinesmena/sinesmenak aipatzen du/ditu.

1.6.Kristau historiako gertaera baten islatzen duen sinesmena edo sinesmenak identifikatzen ditu.

1.7.Kristau fedearen eduki jakin batzuen aurrean jarrera kritikoa azaltzen du eta horien oinarriari buruzko azalpenak eskatzen ditu.

2.-BIBLIARI buruzko gaitasunak

2.1.Bibliako testu baten kontatu edo proposatutakoaren eta kristau liturgiako ospakizunen arteko antzekotasun eta aldeak banan-banan aipatzen ditu.

2.2.Bibliako testuan, berau oinarri duten printzipio, arau eta irizpide moralak antzematen ditu.

3.-KRISTAU ELKARTEARI buruzko gaitasunak

3.1.Euskal gizartean kultura eta kristau balioak sustatzeko duen jarduera bideratzen duten pertsona eta erakundeei buruzko informazioa biltzen, antolatzen eta komunikatzen du.

3.2.Historiako gertaera batzuen artean, kristau Elkarteko gaur egungo gertaerekin lotura dutenak antzematen ditu.

4.-ELIZAREN OTOITZ ETA GURTZARI buruzko gaitasunak

4.1.Liturgi jarduera batetik eratorritako jokamoldeak aipatzen eta oinarritzen ditu.

4.2.Ospakizunaren garapen estetikoak dakarten elementuak aipatzen eta deskribatzen ditu.

4.3.Herri erlijiotasuneko adierazpen baten jatorri historikoa kontatzen edo deskribatzen du.

4.4.Liturgi jardueretan antzematen dituen balioak aipatzen ditu eta/edo horietan parte hartzeko interes eta borondatea erakusten du.

5.-KRISTAUTASUNAREN KODE MORALARI buruzko gaitasunak

- 5.1.Kristau jokamoldearen aginduren bat eredugarritasunez bete zuten gaur egungo edo historiako pertsonaia eta gertaeren adibideak jartzen ditu.*
- 5.2.Etika eta moralari lotutako gaur egungo arazoei ezartzen zaien kristau jokamolderen bat bibliako erreferentziekin argumentatzen du.*
- 5.3.Bere partehartzea bermatzen duten beste talde erlijioso batzuekin batera parte hartu izan duen edo parte hartzen diharduen gizarte ekintzarako jardueren agenda aurkezten du.*
- 5.4.Kristau elkarteak gaur egun bizi duen egoera, positibo edo negatiboa, eragin duten arrazoi historikoak aukeratzen ditu zerrenda batetik eta zuzen baloratzen ditu.*
- 5.5 Ordenamendu juridikoko xedapen legal baten eta kristau moraleko oinarri edo arau baten artean izaten diren antzekotasunak eta aldeak antzematen ditu.*
- 5.6.Konfesio edo talde erlijioso baten oinarri eta arau moral nagusien zerrenda ordenatua aurkezten die kideei argitasunez.*
- 5.7.Inguruan bizi izandako jarduera edo egoera jakin batzuen moraltasunari buruzko galderak egiten ditu eta iritziak ematen.*

6.-KRISTAU FEDEAREN ADIERAZPEN ARTISTIKOEI buruzko gaitasunak

- 6.1.Irudi erlijioso baten osagai apaingarri bereizgarriak zehaztasunez deskribatzen ditu eta beren esanahia azaltzen du.*
- 6.2.Kristau historiako gertaerak irudikatzen dituzten irudiak deskribatzen ditu.*

7.-KRISTAU FEDEAREN GIZARTE-KULTURA ADIERAZPENEI buruzko gaitasunak

- 7.1.Beren inguruan zein munduan, gizabanakoen eta gizartearen aurrerapena eragin duten Euskal Herriko Elizako pertsona nabarmenen istorioa kontatzen du.*
- 7.2.Elizak edo beste talde erlijioso batzuek era bateko eta besteko beharrei – pobretasuna, misiolari presentzia, hezkuntza kanpainak, elkartasun jarduerak, bakearen aldeko ekintzak,...- aurre egiteko egiten dituzten jarduera eta ekintzetan parte hartzeko bideak aurkezten ditu.*
- 7.3.Gizarte eta kultura inguruan eragina duten Erljioaren adierazpenei buruzko iritzi justifikatuak ematen ditu.*
- 7.4.Bere inguruko ohituraren bat aipatzen du, dagokionean, sortu zuen talde erlijiosoaren arteko bizikidetasuneko gertaera historikoa zehaztuz.*
- 7.5.Bere inguruko taldeek sustatutako jardueretan parte hartzeko prest dago eta/edo bakegile agertzen da lehiakortasun edo gatazkaz jantzitako egoeretan.*

8.-KRISTAU ELKARTEAREN HISTORIARI buruzko gaitasunak

8.1.Gaur egungo kristau elkarteko erakunde, jarduera edo gertaerekin loturaren bat duten historiako gertaerak aipatzen ditu.

8.2.Kristau historiako pertsonaia eta gertaera batzuei buruzko hautemate moralak proposatzen eta justifikatzen ditu.

8.3.Giza sustapenaren eta gizartearen eraldaketaren inguruan kristau historian izandako gertaera batzuen eta gaur egun Elizan ikusten diren gertaera edo jardueren arteko antzekotasunak eta aldeak ezartzen ditu.

8.4.Historian gertatutako pertsonaia edo talde erlijiosoren baten funtsezko gertaerak ordenan aipatzen ditu.

8.5.Bere gaur egungo gizarte eta/edo erlijio inguruarekin zerikusia duten historiako pertsonaia eta/edo gertaeren aurrean estimua erakusten du.

9.-INGURUAN DAUDEN BESTE ERLIJIO BATZUEI buruzko gaitasunak

9.1.Lankidetzarako jarduera txiki batzuetan parte hartzen du erlijio desberdineko beste pertsona batzuekin batera.

9.2.Bere taldetik desberdinak diren inguruko beste talde batzuek gauzatutako kultura jarduera eta adierazpenei buruzko informazioa biltzen eta antolatzen du.

9.3.Bere inguruko talde erlijiosoak errespetatu eta baloratu egiten ditu eta, era berean, talde jakin bateko (esate baterako, kristau elkarteak) kide izatearen inguruko arrazoiak ematen ditu.

6. MAILA

1.-SINESMENEI buruzko gaitasunak

1.1.Kristau elkarteak gauzatutako jardueren zerrendaren eta horien oinarri diren sinesmenen zerrendaren arteko korrespondentzia ezartzen du.

1.2.Kristau elkartearen jarduera bat deskribatzen du, jarduera hori Elizari buruzko zein sinesmenen ondorio den aipatuz.

1.3.Liturgi urteko jaiegun jakin baten Elizak ospatzen duen jarduera edo gertaera deskribatzen du.

1.4.Jokaerarako arau jakin bat justifikatzen du, kristau elkartearen sinesmen edo irakaskuntzetan oinarrituz.

1.5.Herri erlijiotasuneko adierazpen baten eta honi lotuta dagoen kristau sinesmenaren arteko antzekotasun eta aldeak aipatzen ditu.

1.6.Iraganeko irudi, eraikin, objektu erlijioso batek adierazten edo islatzen duen/dituen sinesmena/sinesmenak aipatzen du/ditu.

1.7.Kristau historiako gertaera baten islatzen duen sinesmena edo sinesmenak identifikatzen ditu.

1.8.Sinesmen jakin baten eragin aipagarria izan duen kristau historiako gertaeraren bat aipatzen du.

1.9.Sinesmenen zerrenda baten, hauetako bakoitza zein talde erlijiosori dagokion identifikatzen du.

1.10. Inguruko talde erlijiosoen funtsezko sinesmenak ordenaz antolatzen eta deskribatzen ditu.

1.11. Kristau fedearen eduki jakin batzuen aurrean jarrera kritikoa azaltzen du eta horien oinarriari buruzko azalpenak eskatzen ditu.

2.-BIBLIARI buruzko gaitasunak

2.1. Emandako bibliako testu batzuk kronologikoki ordenatzen ditu.

2.2. Bibliako testu batzuetan batera agertzen diren ideien eskema egiten du.

2.3. Bibliako testuan, berau oinarri duten printzipio, arau eta irizpide moralak antzematen ditu.

2.4. Bibliako testu baten eta beste erlijio bateko testu sakratu baten gizateriaren funtsezko auziei buruz jasotzen direnen arteko antzekotasun eta aldeak aipatzen ditu.

3.-KRISTAU ELKARTEARI buruzko gaitasunak

3.1. Euskal gizartean kultura eta kristau balioak sustatzeko duen jarduera bideratzen duten pertsona eta erakundeei buruzko informazioa biltzen, antolatzen eta komunikatzen du.

3.2. Historiako gertaera batzuen artean, kristau Elkarteko gaur egungo gertaerekin lotura dutenak antzematen ditu.

3.3. Beste talde erlijioso batzuen antolakuntzari buruzko informazioa biltzen du, protagonistengandik beraiegandik zuzenean jasota.

3.4. Beste talde erlijioso batzuek sinesmen bati buruz edo jarduera bati buruz edo kristau elkartearen sinesmen bati buruz aurkezten dituzten antzekotasun eta aldeak aipatzen ditu.

4.-ELIZAREN OTOITZ ETA GURTZARI buruzko gaitasunak

4.1. Liturgi jarduera batetik eratorritako jokamoldeak aipatzen eta oinarritzen ditu.

4.2. Ospakizunaren garapen estetikoa dakarten elementuak aipatzen eta deskribatzen ditu.

4.3. Herri erlijiotasuneko adierazpen baten jatorri historikoa kontatzen edo deskribatzen du.

4.4. Liturgi jardueretan antzematen dituen balioak aipatzen ditu eta/edo horietan parte hartzeko interes eta borondatea erakusten du.

5.-KRISTAUTASUNAREN KODE MORALARI buruzko gaitasunak

5.1. Kristau jokamoldearen aginduren bat eredugarritasunez bete zuten gaur egungo edo historiako pertsonaia eta gertaeren adibideak jartzen ditu.

5.2. Etika eta moralari lotutako gaur egungo arazoei ezartzen zaien kristau jokamolderen bat bibliako erreferentziekin argumentatzen du.

5.3. Bere partehartzea bermatzen duten beste talde erlijioso batzuekin batera parte hartu izan duen edo parte hartzen diharduen gizarte ekintzarako jardueren agenda aurkezten du.

5.4. *Kristau elkarteak gaur egun bizi duen egoera, positibo edo negatiboa, eragin duten arrazoi historikoak aukeratzen ditu zerrenda batetik eta zuzen baloratzen ditu.*

5.5. *Ordenamendu juridikoko xedapen legal baten eta kristau moraleko oinarri edo arau baten artean izaten diren antzekotasunak eta aldeak antzematen ditu.*

5.6. *Konfesio edo talde erlijioso baten oinarri eta arau moral nagusien zerrenda ordenatua aurkezten die kideei argitasunez.*

5.7. *Erljio baten berariazko oinarri eta arau moralak aipatzen ditu, eta beste talde erlijioso batzuetako beste batzuekin konparatzen ditu.*

5.8. *Inguruan bizi izandako jarduera edo egoera jakin batzuen moraltasunari buruzko galderak egiten ditu eta iritziak ematen.*

6.-KRISTAU FEDEAREN ADIERAZPEN ARTISTIKOEI buruzko gaitasunak

6.1. *Irudi erlijioso baten osagai apaingarri bereizgarriak zehaztasunez deskribatzen ditu eta beren esanahia azaltzen du.*

6.2. *Kristau historiako gertaerak irudikatzen dituzten irudiak deskribatzen ditu. Erljio nagusien sinbolorik garrantzitsuenen jatorria argitasunez deskribatzen du.*

6.3. *Erljio nagusien zeinurik nabarmenenen esanahia argitasunez adierazten du.*

6.4. *Erljio nagusien adierazpen artistikoen ezaugarriak aurkezten eta justifikatzen ditu.*

7.-KRISTAU FEDEAREN GIZARTE-KULTURA ADIERAZPENEI buruzko gaitasunak

7.1. *Beren inguruan zein munduan, gizabanakoen eta gizartearen aurrerapena eragin duten Euskal Herriko Elizako pertsona nabarmenen istorioa kontatzen du.*

7.2. *Elizak edo beste talde erlijioso batzuek era bateko eta besteko beharrei – pobretasuna, misiolari presentzia, hezkuntza kanpainak, elkartasun jarduerak, bakearen aldeko ekintzak,...- aurre egiteko egiten dituzten jarduera eta ekintzetan parte hartzeko bideak aurkezten ditu.*

7.3. *Gizarte eta kultura inguruan eragina duten Erljioaren adierazpenei buruzko iritzi justifikatuak ematen ditu.*

7.4. *Bere inguruko ohituraren bat aipatzen du, dagokionean, sortu zuen talde erlijiosoaren arteko bizikidetasuneko gertaera historikoa zehaztuz.*

7.5. *Bere inguruko taldeek sustatutako jardueretan parte hartzeko prest dago eta/edo bakegile agertzen da lehiakortasun edo gatazkaz jantzitako egoeretan.*

8.-KRISTAU ELKARTEAREN HISTORIARI buruzko gaitasunak

8.1. *Gaur egungo kristau elkarteko erakunde, jarduera edo gertaerekin loturaren bat duten historiako gertaerak aipatzen ditu.*

8.2. *Kristau historiako pertsonaia eta gertaera batzuei buruzko hautemate moralak proposatzen eta justifikatzen ditu.*

8.3. *Giza sustapenaren eta gizartearen eraldaketaren inguruan kristau historian izandako gertaera batzuen eta gaur egun Elizan ikusten diren gertaera edo jardueren arteko antzekotasunak eta aldeak ezartzen ditu.*

8.4. *Historian gertatutako pertsonaia edo talde erlijiosoren baten funtsezko gertaerak ordenan aipatzen ditu.*

8.5. *Bere gaur egungo gizarte eta/edo erlijio inguruarekin zerikusia duten historiako pertsonaia eta/edo gertaeren aurrean estimua erakusten du.*

9.-INGURUAN DAUDEN BESTE ERLIJIO BATZUEI buruzko gaitasunak

9.1. *Inguruko erlijioen sinesmen nagusien eskema edo mapa kontzeptuala egiten du.*

9.2. *Lankidetzarako jarduera txiki batzuetan parte hartzen du erlijio desberdineko beste pertsona batzuekin batera.*

9.3. *Bere taldetik desberdinak diren inguruko beste talde batzuek gauzatutako kultura jarduera eta adierazpenei buruzko informazioa biltzen eta antolatzen du.*

9.4. *Erljio nagusien sinesmen, oinarri moral eta antolakuntzaren arteko antzekotasun eta aldeak aipatzen ditu.*

9.5. *Bere inguruko talde erlijiosoak errespetatu eta baloratu egiten ditu eta, era berean, talde jakin bateko (esate baterako, kristau elkarteak) kide izatearen inguruko arrazoiak ematen ditu.*

EUSKERA

5. MAILA

1. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea, eta informazio horren ulermena beste egoera batzuetan aplikatzea.

1.1. Ea ezagutzen dituen ahozko testuen genero ohikoak.

1.2. Ea antzematen dituen gaia eta igorlearen helburua.

1.3. Ea entzute-helburuaren xedeko informazioak antzematen eta bereganatzen dituen.

1.4. Ea antzematen dituen testu akademikoen lehen eta bigarren mailako ideiak.

1.5. Ea era bateko eta besteko lanak egiteko behar diren datu zehatzak ezagutzen eta jasotzen dituen, informazioa erregistrazeko bitarteko zenbait erabilia.

1.6. Ea testuak ulertzeko sortzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen dituen.

1.7. Ea arretaz entzuten duen.

1.8. Ea entzundako testuen ideia nagusiak gogoratzen dituen eta hitzez adierazten.

1.9. Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikas-ekintzetan.

2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilia.

2.1. Ea testuaren generoa bereizten duen, bai eta gaia eta egilearen helburua ere.

2.2. Ea testuaren esanahi orokorra hartzen duen.

2.3. Ea testuaren ideia nagusiak laburtzen dituen.

2.4. Ea kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen testuko ideia nagusiak erabilia.

2.5. Ea estrategia egokiak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak.

2.6. Ea bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta testuaren alderdi zehatzei eta testuaren formari buruzko iritzi arrazoitua ematen duen.

2.7. *Ea antzematen dituen hizkuntzaren erabilpen diskriminatzaile ohikoak.*

3. Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, irakurketaren helburua betez.

3.1. *Ea dakien irakurketaren helburua zein den, eta helburuak lortzeko estrategia egokiak erabiltzen dituen.*

3.2. *Ea informazio-iturri analogiko eta digitalera jotzen duen, laguntza jasota, irakurketaren helburuari erantzuteko.*

3.3. *Ea informazioa aurkitzeko orduan, erabiltzen dituen hizkuntzako eta hizkuntzaz kanpoko elementuak: testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak...*

3.4. *Ea eskolako testuetan, irakurketaren xedeari funtsezkoa zaion informazioa hautatzen duen, eta erregistro-bitartekoen bidez biltzen (taulak, eskemak, galdetegiak...) dituen datuak.*

4. Eskola-esparruko edo komunikabideetako ahozko testuak, genero askotakoak, sortzea; eta sorkuntza hori koherentea, osoa eta zuzena izatea, baliabide ez-linguistikoak (keinuak, ikusizko euskarriak) behar bezala erabilia eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartuta.

4.1. *Ea argi adierazten dituen ikas-egoerekiko dituen ideiak, bizipenak eta jakintzak.*

4.2. *Ea zentzuzko galderak egiten dituen informazioa bilatzerakoan, bai hedabideen esparruan, bai ikaskuntzaren esparruan.*

4.3. *Ea oharrik, eskemarik eta gidoirik erabiltzen duen sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.*

4.4. *Ea aurrez planifikazio gidatua eginda, ahozko testuak argi eta behar bezala antolatuta azaltzen dituen (deskribapenak, prozesuen azalpenak eta bestelako azalpenak), ikusizko euskarriak erabilia.*

4.5. *Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako ikastetxe-dinamiken barruan sortzen diren hausnarketa eta eztabaidetan.*

4.6. *Ea moldatzen den komunikazio-egoeraren oinarritzko alderdietara: helburura, solaskidera eta gaira.*

4.7. *Ea ez dituen ohiko esaera diskriminatzaileak erabiltzen.*

4.8. *Ea behar bezala intonatzen eta ahoskatzen duen.*

4.9. *Ea nahiko ondo kontrolatzen dituen ahotsa, keinuak eta gorputzaren jarrera.*

5. Ikastetxeko eta gertuko inguruneko harreman-egoeretan parte hartzea, behar bezalako naturaltasun, egokitasun eta zuzentasunez hitz eginez, harremanaren oinarritzko arauak betez eta gainerako pertsonen begirunea erakutsiz.

5.1. *Ea elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzen dituen.*

5.2. *Ea behar bezala aplikatzen dituen hitzezko harremanetako gizarte- eta komunikazio-arauak.*

5.3. *Ea koherentzia, argitasun eta erraztasun nahikoz adierazten dituen ideiak, gertakariak, bizipenak eta sentipenak, egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiliz.*

5.4. *Ea testuingurura egokitutako hitzak eta esamoldeak erabiltzen dituen.*

5.5. *Ea solaskidearen jardunera egokitzen duen bere hizketaldia.*

5.6. *Ea iritzi arrazoituak ematen dituen.*

5.7. *Ea elkarrizketaren harira doazen galdera eta iruzkin egokiak egiten dituen.*

5.8. *Ea intonazio, jarrera eta keinu egokiak erabiltzen dituen.*

5.9. *Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lan-kidetzan eta ikaskuntzan.*

5.10. *Ea ohiko esaera diskriminatzaileak antzematen dituen eta horiek ez erabiltzen saiatzen den.*

6. Genero eta erabilera-esparru askotako testu idatziak sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, laguntza jasota: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, egokitasun-, koherentzia-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarri bat erakutsiz.

6.1. *Ea jarraibideak beteta, eskema edo oharren bidez planifikatzen duen testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta.*

6.2. *Ea paragrafoetan antolatzen duen informazioa.*

6.3. *Ea oinarrizko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko.*

6.4. *Ea egoki betetzen dituen aurrez zehaztutako xedeak.*

6.5. *Ea egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen dituen.*

6.6. *Ea gramatikako eta ortografiako oinarrizko arauak betetzen dituen.*

6.7. *Ea argi eta txukun aurkezten duen testua.*

6.8. *Ea sortze- eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.*

7. Laguntza jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea,

informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, ereduetan

oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta

komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna

horien erabiltzeko interesa adieraziz.

7.1. *Ea informazio-bilaketak eta –hautaketak egiten dituen, bilatzaileak jarraibideen arabera erabiliz eta aurrez adierazitako webguneetara sartuz.*

7.2. *Ea testu-prozesadoreen oinarrizko funtzioak erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko.*

7.3. *Ea behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten dituen eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitarteko eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilia.*

8. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea — testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak gero eta autonomia handiagoz sortzeko eta berrikusteko.

8.1. *Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.*

8.2. *Ea ohartzen den esaldietan eta testuetan segmentatzeak, tokiz aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak eragiten dituzten ondorioez.*

8.3. *Ea, jarraibideak emanda, aplikatzen dituen hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak, testuak ulertzeko eta sortzeko.*

8.4. *Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...*

8.5. *Ea nahiko ongi erabiltzen dituen komunikazio-egoerarako egokia den erregistro formala edo informala.*

8.6. *Ea antzematen dituen edozein motatako aurreiritziak adierazten dituzten hizkuntza-estereotipoak beste pertsona batzuek egindako testuetan, eta horiek ez erabiltzen saiatzen den.*

8.7. *Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua sortzerakoan zalantzak argitzeko.*

8.8. *Ea jarraibideei atxikita, oinarrizko akatsak antzematen dituen bere eta besteren testuetan, gero eta autonomia handiagoa erakutsiz testuen berrikuspenean eta hobekuntzan.*

9. Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko terminologia ezagutzea, eta hura erabiltzea hizkuntza-jardueretan.

9.1. *Ea testuak sortzeko eta berrikusteko jardueren azalpenak eta arauak jarraitu ahal izateko terminologia nagusia ulertzen duen.*

9.2. *Ea testu-generoen izenak, esaldien elementuen eta esaldi- eta hitz moten izenak ezagutzen dituen, eta oinarrizko terminologia hori erabiltzen hasi den, hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan.*

9.3. *Ea landutako hizkuntza-elementu oinarrizkoak ezagutzen dituen, ohikotasunez erabilitako testu anitzekin egindako lanari erreparatuta.*

10. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta balioestea, inguruko errealitate linguistikoari erreparatuta.

10.1. Ea identifikatzen dituen gelako eta inguruko zenbait pertsonaren hizkuntza-errepertorioko hizkuntzak, eta adierazten duen haiekiko jakin-mina eta errespetua, hizkuntzen eta horien hiztunen gaineko aurre-judizioak alde batera utzita.

10.2. Ea inguruko egoera soziolinguistiko konkretuak deskribatzen eta komentatzen dituen, errespetua adieraziz eta hizkuntzekin eta horien hiztunekin lotutako aurreiritziak alde batera utziz.

10.3. Ea euskara batua eta euskalki nagusiak ezagutzen dituen, horien komunikazio-balioa aitortuz.

10.4. Ea hizkuntzekiko jarrera ona duen eta denei ematen dien balioa.

11. Hizkuntza gutxituak garatzearen eta normaltzearen aldeko jarrera du.

11.1. Ea euskarazko jardueretan parte hartzen duen eskolan nahiz eskolatik kanpo.

11.2. Ea euskara erabili ohi duen komunikazio-ekintzetan.

11.3. Ea parte hartzen duen euskal kulturaren transmisioarekin eta sorrerarekin zerikusia duten eskolako eta ikaslearen inguruneko jarduera anitzetan.

12. Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.

12.1. Ea arretaz irakurtzen eta entzuten dituen literatura-genero askotako testuak, bere interesei egokituak.

12.2. Ea gogotsu parte hartzen duen esanahi parte-katuak sortzeko negoziazioetan.

12.3. Ea ahozko eta idatzizko literatura-testuen esanahia ulertzen duen, hainbat ezaugarri kontuan hartuz.

12.4. Ea naturaltasunez eta modu adierazkorrean ikasten eta errezipitatu dituen literatura-testu sinpleak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradizionalak nahiz gaur egungoak.

12.5. Ea naturaltasun eta adierazkortasun nahikoz kontatzen dituen askotariko narrazio-testuak (ipuinak, txisteak, pasadizoak, etab.).

12.6. Ea gogotsu parte hartzen duen –erritmo, ahoskera, azentu eta intonazio egokiz- antzeztan, testuak birsortzen eta olerkiak, bertsoak eta kontakizunak errezipitatu, horretarako antzeztapenaren estrategia sinple batzuk erabiliz.

13. Liburutegi-mediatekak erabiltzea, eta idazlanak eta bestelako materialak antolatzeke eta hautatzeko prozedurak ulertzea.

13.1. *Ea irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen dituen (ahozko literaturakoak, literatura idatzikoak edo horiekin lotutako beste arte-arlo batzuetakoak), une atseginak igarotzeko.*

13.2. *Ea eskolako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen duen, eta bere kabuz erabiltzen duen.*

13.3. *Ea eskolako liburutegia zaintzen duen eta hari dagozkion mantentze-lanak egiten laguntzen duen.*

13.4. *Ea egindako irakurketetatik aterako informazioak eta gogoetak plazaratzen dituen, haiei buruzko elkarrizketen harira.*

14. *Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate*

pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.

14.1. *Ea literatura-obrak irakurri ohi dituen une atseginak igarotzeko.*

14.2. *Ea bere bizipenekin erlazionatzen duen obraren edukia.*

14.3. *Ea gogotsu parte hartzen duen literaturari buruzko elkarrizketetan, eta bere bizipenak eta ikuspegia adierazten dituen.*

14.4. *Ea irakurritako literatura-obrei buruzko iritzia ematen duen, ahoz eta idatziz.*

14.5. *Ea lagundutako plangintza eginda, literatura-asmoko testu idatziak nahiz ahozkoak sortzen dituen euskarri anitzetan, gelan irakurri edo komentatutako literatura-testu bat eredutzat hartuta eta bere ideiez eta bizipenez baliatuta.*

14.6. *Ea gelako eta eskolako literatura-jardueretan parte hartzen duen.*

15. *Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasteko alderdi*

batzuk ezagutzea.

15.1. *Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.*

15.2. *Ea hiztegiak, kontsultarako materiala eta baliabide teknologiko xume batzuk erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko, eta informazioa bilatzeko eta antolatzeko.*

15.3. *Ea neurtzen dituen egin dituen aurrerapenak, eta hobeto ikasi ahal izateko baliabide eta estrategia batzuk ezagutzen dituen.*

15.4. *Ea bere kabuz erabiltzen dituen eguneroko egitura xumeak, akatsik arruntenak pixkanaka zuzenduz.*

15.5. *Ea onartzen duen akatsak egitea ikas-prozesuaren zati dela.*

16. *Ea, laguntza jasota, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-*

estrategiak erabiltzen dituen beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko

eta sortzeko.

6. MAILA

1. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea, eta informazio horren ulermena beste egoera batzuetan aplikatzea.

1.1. Ea ezagutzen dituen ahozko testuen genero ohikoak.

1.2. Ea antzematen dituen gaia eta igorlearen helburua.

1.3. Ea entzute-helburuaren xedeko informazioak antzematen eta bereganatzen dituen.

1.4. Ea antzematen dituen testu akademikoen lehen eta bigarren mailako ideiak.

1.5. Ea era bateko eta besteko lanak egiteko behar diren datu zehatzak ezagutzen eta jasotzen dituen, informazioa erregistratzeko bitarteko zenbait erabilia.

1.6. Ea testuak ulertzeko sortzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen dituen.

1.7. Ea arretaz entzuten duen.

1.8. Ea entzundako testuen ideia nagusiak gogoratzen dituen eta hitzez adierazten.

1.9. Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikas-ekintzetan.

1.10. Ea ulertzen duen diskriminazioa adieraztenduten adierazpideen zentzua.

2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilia.

2.1. Ea testuaren generoa bereizten duen, bai eta gaia eta egilearen helburua ere.

2.2. Ea testuaren esanahi orokorra hartzen duen.

2.3. Ea testuaren ideia nagusiak laburtzen dituen.

2.4. Ea kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen testuko ideia nagusiak erabilia.

2.5. Ea estrategia egokiak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak.

2.6. Ea bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta testuaren alderdi zehatzei eta testuaren formari buruzko iritzi arrazoitua ematen duen.

2.7. Ea antzematen dituen hizkuntzaren erabilpen diskriminatzaile ohikoak.

3. Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, irakurketaren helburua betez.

3.1. Ea dakien irakurketaren helburua zein den, eta helburuak lortzeko estrategia egokiak erabiltzen dituen.

- 3.2. *Ea informazio-iturri analogiko eta digitalera jotzen duen, laguntza jasota, irakurketaren helburuari erantzuteko.*
- 3.3. *Ea informazioa aurkitzeko orduan, erabiltzen dituen hizkuntzako eta hizkuntzaz kanpoko elementuak: testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak...*
- 3.4. *Ea eskolako testuetan, irakurketaren xedeari funtsezkoa zaion informazioa hautatzen duen, eta erregistro-bitartekoen bidez biltzen (taulak, eskemak, galdetegiak...) dituen datuak.*

4. Eskola-esparruko edo komunikabideetako ahozko testuak, genero askotakoak, sortzea; eta sorkuntza hori koherentea, osoa eta zuzena izatea, baliabide ez-linguistikoa (keinuak, ikusizko euskarriak) behar bezala erabilia eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartuta.

- 4.1. *Ea argi adierazten dituen ikas-egoerekiko dituen ideiak, bizipenak eta jakintzak.*
- 4.2. *Ea zentzuzko galderak egiten dituen informazioa bilatzerakoan, bai hedabideen esparruan, bai ikaskuntzaren esparruan.*
- 4.3. *Ea oharrik, eskemarik eta gidoirik erabiltzen duen sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.*
- 4.4. *Ea aurrez planifikazio gidatua eginda, ahozko testuak argi eta behar bezala antolatuta azaltzen dituen (deskribapenak, prozesuen azalpenak eta bestelako azal-penak), ikusizko euskarriak erabilia.*
- 4.5. *Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako ikaste-dinamiken barruan sortzen diren hausnarketa eta eztabaidetan.*
- 4.6. *Ea moldatzen den komunikazio-egoeraren oinarrizko alderdietara: helburura, solaskidera eta gaira.*
- 4.7. *Ea ez dituen ohiko esaera diskriminatzaileak erabiltzen.*
- 4.8. *Ea behar bezala intonatzen eta ahoskatzen duen.*
- 4.9. *Ea nahiko ondo kontrolatzen dituen ahotsa, keinuak eta gorputzaren jarrera.*

5. Ikastetxeko eta gertuko inguruneke harreman-egoeretan parte hartzea, behar bezalako naturaltasun, egokitasun eta zuzentasunez hitz eginez, harremanaren oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonen begirunea erakutsiz.

- 5.1. *Ea elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzen dituen.*
- 5.2. *Ea behar bezala aplikatzen dituen hitzezko harremanetako gizarte- eta komunikazio-arauak.*
- 5.3. *Ea koherentzia, argitasun eta erraztasun nahikoz adierazten dituen ideiak, gertakariak, bizipenak eta sentipenak, egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiliz.*
- 5.4. *Ea testuingurura egokitutako hitzak eta esamoldeak erabiltzen dituen.*
- 5.5. *Ea solaskidearen jardunera egokitzen duen bere hizketaldia.*
- 5.6. *Ea iritzi arrazoituak ematen dituen.*
- 5.7. *Ea elkarrizketaren harira doazen galdera eta iruzkin egokiak egiten dituen.*

5.8. *Ea intonazio, jarrera eta keinu egokiak erabiltzen dituen.*

5.9. *Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lan-kidetzan eta ikaskuntzan.*

5.10 *Ea ohiko esaera diskriminatzaileak antzematen dituen eta horiek ez erabiltzen saiatzen den.*

6. Genero eta erabilera-esparru askotako testu idatziak sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, laguntza jasota: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, egokitasun-, koherentzia-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarri bat erakutsiz.

6.1. *Ea jarraibideak beteta, eskema edo oharren bidez planifikatzen duen testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta.*

6.2. *Ea paragrafoetan antolatzen duen informazioa.*

6.3. *Ea oinarrizko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko.*

6.4. *Ea egoki betetzen dituen aurrez zehaztutako xedeak.*

6.5. *Ea egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen dituen.*

6.6. *Ea gramatikako eta ortografiako oinarrizko arauak betetzen dituen.*

6.7. *Ea argi eta txukun aurkezten duen testua.*

6.8. *Ea sortze- eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.*

7. Laguntza jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, ereduetan oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna horien erabiltzeko interesa adieraziz.

7.1. *Ea informazio-bilaketak eta –hautaketak egiten dituen, bilatzaileak jarraibideen arabera erabiliz eta aurrez adierazitako webguneetara sartuz.*

7.2. *Ea testu-prozesadoreen oinarrizko funtzioak erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko.*

7.3. *Ea behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten dituen eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitarteko eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilia.*

8. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea — testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak gero eta autonomia handiagoz sortzeko eta berrikusteko.

8.1. *Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.*

8.2. *Ea ohartzen den esaldietan eta testuetan segmentatzeak, tokiz aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak eragiten dituzten ondorioez.*

8.3.Ea, jarraibideak emanda, aplikatzen dituen hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak, testuak ulertzeko eta sortzeko.

